

berria

2015 - XI - 8

XIII. urtea, 3.841. zenbakia

1,80€

Egandea

Boterearen bi jantziak

2

Euskal Herrian ere badira politikatik enpresarako ate errotak. Jaurларitzan eta Nafarroako Gobernuan lau goi kargudunetik batek egin du bide hori.

Hitzarmena

Euskarak diru gehiago behar duela esanez izenpetu dute lurralde kontratua

12

Politika

Ezker abertzaleak 'Abian' hasi du, 'Zutik Euskal Herria'-ren osteko urratsa estrategia zehazteko

14

Jabier Larrañaga

«Fortuna handien zergari izena aldatu behar zaio; horrek ez du islatzen Gipuzkoaren errealitatea»

Elkarrizketa • 18

Luis de Pablo

«Pop eta rock guztia kontsumo musika da. Bestela, ez litzateke hain babestuta egongo»

Nasan • 34

Nason

33

IGANDEKO BERRIA
2015eko azaroaren 8a

Luis de Pablo

Abangoardia guztietan arakatu eta bere bide propioa pasioz nahiz sendotasunez egin duen musika konpositorea da. Etengabe garaikide izateko gogoak ematen dio arnasa berria eta sorkuntzarako bulkada. ●34

Musika ●37

Jatorrietara itzulita, zaleen eta kritikaren babesa berreskuratu du New Orderrek 'Music Complete' diskoarekin

Literatura ●38

Bere garaia erretiratu egin zuen Arthur Millerrek 'The Crucible' antzezlanarekin

«Elitea ezinbestekoa da, baina iritsi erraza izan behar du»

Luis de Pablo • Musika konpositorea

Europak azken mende erdi luzean eman duen konpositore oparo eta apartenetakotzat dute adituek; 200 obra inguru sortuak ditu, molde askotakoak, eta, oraindik ere, sortzen jarraitzeko asmo irmoa dauka; musika zein musikak bizi du.

Gorka Erostarbe Donostia

Donostian hasi zuena –2013ko udan– bertan aurkeztera etorria da. *Pensieri. Rapsodia para flauta y orquesta* lana aurkeztu du Donostiako Kursaallean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Roberto Fabbriciani flauta jotzaile italiarraren eskutan jarrita. 85 urte ditu Luis De Pablo musika konpositoreak (Bilbo, 1930). Ahotsa apaltzen hasia du 1950eko hamarkadatik aurrera musika garaikidearen adar eta lengoia desberdin zenbait landuz (orkestrarako konposizioak, ahots konposizioak, elektroakustika, zinemarako musika, operak...) izen nabarmenetako bat eskuratu duen konpositoreak. Gorputz mugimendua eta buru argitasuna ez du batere galdu. Munduko hamaika lekutan bizi izandakoa da –Kanadan denbora luze batez, besteak beste–, eta Madrilen du egun bizitokia. Suveni Zerboni Milango musika klasikoko zigilu esanguratsuen kaleratzen dizkio lan asko, eta bertako arduradun Gabriele Bonomorenkin da Donostian. «Musika garaikideko handietako bat duzue hemen», esan du italiarrak. Kontzertuaren aurretik hainbat ikasle gazterekin solasaldi moduko bat dauka. Lehenago hartu gaitu.

Zer esango zenioke hastear den musikari gazte bati?

Besterik gabe esango nioke lan egin dezala, egon dadila adi, ez dezatela modek liluratu, eta saia dadila musikaren historia luzea ezagutzen, eta ez soilik Europakoa, ahalik eta leku gehienetako, gaur egun badago horretarako baliabiderik eta. Sar dadila itsaso zabal horretan, surfari bat

balitz bezala, eta hortik pixkana-pixkana atera dezala zer egin nahi duen.

Zenbat kosta zitzazun zuri musikaren itsaso zabal horretan sartzea?

Bueno, Europako musika garaikidean murgiltzeko ez dut inolako arazorik izan, bertako kide izan bainaiz. Gainerako guztia ezagutzen joatea prozesu luzea izan da, baina horrek ez du batere garrantzirik, musikaren irakaskena ez baita inoiz amaitzen. Bizitza osoko langintza da; soilik heriotzak etengo du hori. Ez dut uste egongo denik konpositorerik edo pintorerik esan dezakeena, «dena ezagutu dut». Ez! Absurdoa litzateke hori esatea. Konpositore gazteak jakin dezala sekula amaitzen ez den bide luze bat duela, eta hori zoragarria da, bera izateko aukera bakarra baita.

Zer da gaur egunean abangoardiako musikari izatea?

Oraina zer den bere erara ulertuz musika egitea, baina ez dadila ulertu hori orain politiko sozial eta abar bezala, ez, ez... bere orainak, berak bizi eta sentitutakoak bultzatzen.

Eta zein da zure oraina?

Nirea? Jakingo banu oso gustura esango nizuke, baina ez dakit... Nire oraina konposatzen jarraitzea da, bai eskatzen didatena eta baita eskatzen ez didatena ere, denetik baitago. Ezin dut askoz gehiago esan. Gutxi gorabehera 200 bat obrako katalogoa daukat, eta normala den bezala horrek pisu handia dauka. Hori aldi berean da estimulu bat eta galga bat. Estimulua da jarraitzeko indarra ematen duelako, eta galga da iragan askotan astuna bihurtzen delako orainarentzat edo etorki-

zunarentzat. Baina horrek ez nau arduratzen orain.

Sorkuntzarako inpultso hori bizi-bizirik duzu oraindik?


Orain artean bai, nahiz eta adinean oso gora noan [barreak]. Musika egiteko behar larria dut oraindik ere, duela urte asko bezainbeste.

Esan duzu errealtate politikoa ez dela musikariaren oraina, baina errealtate politiko horrek eragingo du zure sorkuntzan, ezta?

Bai, dudarik gabe, eragiten du, baina ez nuke jakingo esaten nola eragiten duen. Horrek markatzen du, markatzen duen bezala leku jakin batean jaio izateak, edo hezkuntza beste nonbait jaso izateak... Gauza horiek guztiek markatu egiten dute. Baina oso zaila izaten da jakitea nola markatzen duten, ez dakit, nire gibela une honetan nola ari den lanean jakitea bezain zaila. Ondo artzea espero!

Musika klasikoa deituaren historia porrot bat dela esan izan duzu...

Lehenik, definitu beharko genuke, edo argi azaldu beharko genuke zer ulertzen dugun musika klasikoz. Ari bagara Beethoven, Chopin, Bach... hori da gure herentzia europarra, eta hori musika sakroa da. Nik egin ahal izan dudana kexa da ez dela ezagutzen musika hori, eta ez dela gure kulturaren parte. Nirearen parte bai, eta barkatu nabarmenkeria, nire lana horixe delako. Baina, oro har, irakaskuntza planetan ez da halakorik batere sartzen, hutsaren hurrengoa da. Eta hori, jakina, tragedia handi bat da. Musika ezin baita izan errealtate oparo bat; ez da loretan egongo, ez bal-



din badu babes sozialik, ez badu behar sozial bat. Oso jende gutxi daki musika klasikoa zer den esperientzia biziak. Musika klasikoa ez da soilik Wagner, Chopin, Mozart... Musika klasikoa izugarria da, eta izugarritasun horrek izan behar luke gure eguneroko oia, gure garaioetako musikarekin batera.

Musika klasikoa kontzeptua berikusi beharrean dagoela iruditzen zaizu?

Akaso birpentsatu beharko litzatekeena terminologia da. *Musika klasikoa* izena bera izugarri itsusia zait niri. Zer esan nahi du *klasikoa* hitzak? Musika mugatu egiten du, ez baita errealtateari dagokiona.

Musika kultura ere esan ohi zaio, musika popularrari kontrajarri...

Are okerragoa, traketsa oso. Nik esatekotan esango nuke bat dela arte musika, Alemanian esaten duten moduan, eta bestea kontsumo musika. Hori da desberdintasuna. Askok lepoa moztuko lidakete baieztapen hori entzun da, baina hala da. Eta modu gor-

dinagoan ere esango nuke: dirurik ematen ez duen musika eta diru asko ematen duen musika. Bereizketa bat egitekotan, horixe egingo nuke. Hemen Euskal Herrian txalaparta musika popularra da, baina baita rockero bat ere. Orduan, zertan geratzen gara? Zer arraio ote du ikusteko bata bestearekin? Nahasketa handi bat dago, eta uste dut badaukala zerikusirik ez jakin tasun pixka batekin ere.

Arte musikaren eta gizartearen artean dagoen ezin iritsia elitismoari egozten dio zenbaitek.

[Barreak] Baina elitismoa ez da eta txarra! Elitismoa beharrezkoa da erabat. Begiek ikusi egiten dute. Besapeak saiatzen badira ikusten, ez dute ikusiko. Baina begiek, aldi berean, ez dute balio besoak mugitzeko. Funtzioen bakanaketa bat dago. Hori ezinbestekoa da. Egia dena da elitea klase sozial bati dagokiola normalean, eta lortu beharko litzatekeena da elitea klase sozial guztietan txertatzea. Hori bai. Elitea beharrezkoa da. Bestela gizarteak ez luke funtzionatuko. Gorputzean mina



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

badut, ez zait bururutzen adiskide batengana joatea senda nazan. Ulertzen? Medikuairengana joan beharra daukat. Elitea ezinbestekoa da, baina iritsi erraza izan behar du. Eskuragarri egon behar du elite horrek. Elitismoaz hitz egiten didatenean umore txarreko jartzen naute!

Hezkuntza arruntean musika ez dago txertatua.

Hemen Donostian Musikene dago, eta hori zoragarria da, nahiz eta bere gorabeherak izan dituen, baina hasierako Musikene eredu-garria izan zen, eta oraingoa ere hala da. Baina garrantzitsua litzatekeena da, eskola bereziz gaitzen gain, musika hezkuntzan oro har txertatua egotea, eta ez da hain gauza zaila ere. Eskolan musika erakutsi beharko litzateke, baina, batez ere, musika entzuten erakutsi beharko litzateke haurrei, ez hainbeste txirula jotzen edo solfeo ikasten. Eskola guztiek beharko lukete fonoteka bat, liburutegi bat duten modu berean. Entzun dezatela, eta entzuketak sortzen dienaz hitz egin dezatela. Entzuteko beharra sortzea da kontua.

Kontura daitezela neska-mutilak zein plazer ezkututzen den entzunaldi horietan.

Duela berrogei urte Zurezko olerkia lana konposatu zenuen, txalapartaren inguruan. Zer oroitzapen duzu?

Alaitasun handiarekin gogoratzen dut, eta entusiasmo handiarekin egin nuela. *Zurezko olerkia* Alemaniatik egindako enkargu bat izan zen. Urtemuga beethovendar bat ospatzen ari ziren Bonnen, eta eskatu zidaten nahi nuena idatz nezala Beethovenen areto erraldoian eskaintzeko. Arzte anaiak ezagutu berriak nituen, eta Iruñeko Topaketetara eramanez nituen. Otu zitzaidan txalaparta erabiltzea konposaketa baten barruan, nire ustez oso ondo zihoakion osagaiez inguratuta: hau da, perkusio tresna gehiagorekin eta abesbatza batekin. Obraren parte bat Berlinen sortu nuen, eta beste bat Kanadan, orduan han bizi bainintzen.

Gerora ez duzu izan interesik euskal sonoritatean ikertzen jarraitzeko eta obra gehiago sortzeko?

Bai, izan dut zer edo zer egiteko gogoia, ez izan dudarik, baina beste gauza batzuk tartekatuz zaizkit, eta ez dut egin. Eskatu izan didate obra bat idatz dezadan txistuarantz. Egin dut obra txiki bat ere, baina ez dut ukatzen noizbait akaso zerbait egin dezakekela. Txistulari adiskideek barkatuko didate, maitasun osoz esaten baitut, baina txistuak berak baino gehiago erakartzen nau albokaren munduan sartzeak...

Zergatik alboka? Basatiagoa delako?

Bai, ezagutzen dut pixka bat. Etxean musika tresna dezente dut hemengo eta hango. Alboka bat daukat, eta baita albokaren ahai-deak diren beste makina bat ere. Aho instrumentuen familiakoa da. Hor egon liteke aztertzeko bide bat...

Konposatu aurretik zuk zeuk jotzen dituzu musika tresna horiek, haren soinua gorputzean berean sentitzeko?

Bai, ideiak bilatzen ditut horrela. Musika tresnak badituz, baina baita grabaketa asko eta asko ere etxean. Beste kulturetako musika

asko entzuten dut, mendealdeko estandarretatik ateratzen dena. Konturatzen naiz horrek heziegitea nauela.

Oraintxe zein musikatan murgilduta zabilta?

Duela ez asko Perun egon nintzen, eta bertako disko dezente erosi nuen, arreta handiarekin, batez ere charango eta gitarraz osaturiko duoak, benetan popullarrak direnak. Musika hura izan da oso eraso kontsumo musikaren partetik. Oso. Ez diet hori perutarrei aurpegiaritzen, haiek ere denok bezalajan behar baitute eta kontsumoko musikak diru gehiago ematen baitu. Asko interesatzen zait herriko musika ho-



Musika ezin da izan errealtate oparo bat, ez baldin badu babes sozialik, ez badu behar sozial bat.

«Beste kulturetako musika asko entzuten dut, mendealdeko estandarretik ateratzen direnak»

rien sonoritatea, eta soka punteatuko instrumentuen aniztasuna. Zein harreman duzu kontsumoko musika deitzen duzun horrekin? Pop eta rock guztia da kontsumokoa?

Bai, bai, bai, dena da kontsumokoa. Bestela ez litzateke hain babestua egongo. Eta ez, ez daukat inolako harremanik musika horrekin. Ez da kontua gorroto dudanik, ez, baizik eta ez daukadala arrazoirik musika horretara hurbiltzeko. Ez daukat inolako kuriositatetik.

Esperimentazioak zein garrantzi izan du zure sorkuntzan?

Gauza guztiekin esperimentatzen da. Sortzen denean esperimentatu egiten da. Ez dago esperientzia esperimentalagorik haur bat izatea baino, ez dakizulako aterako zaizun Franco edo Paduako San Antonio [barreak]. Beraz, sorkuntza dagoen unetik dago esperimentazioa.

Sortzen duzun guztia idatziz egiten duzu edo inprobisazioak badu tarteren bat?

Oso txikia du egun. Garai batean izan zuen, 1960ko urteetan, baina alboratu egin nuen, nahikoa arriskutsua iruditzen baitzitzaidan, eta gaur egun guztiz alboratuta daukat.

Musika elektronikoak erakartzen zaitu oraindik?

Bada, antzekoa gertatzen zait.

1962an Espainiako musika elektronikoko lehen laborategia sortu nuen, baina pixkana uzten joan nintzen, ez baitzen gehien erakartzen ninduen. Badituzte konposaketa elektroakustiko zenbait, baina ikusten nuen niretzat ez zuela etorkizun bat. Gainera, musika elektroakustikoa sortu zen abangoardiaren eta esperimentazioaren gailur bezala, baina segituan bihurtu zen espekulazio ekonomikorako elementu bat. Eta hori tragedia bat izan zen. Hasi ziren aparatuek sortzen, edozeinen eskura zegoen txistutxo soinuak egiten... Lehen urteetan esperientzia zoragarria izan zen musika elektronikoarena, kontuak geldo egiten zirenean, baina pixkanaka kontsumo musikako elementu bat gehiago bihurtu da.

Bela Bartok, John Cage eta Igor Stravinski. Zer esaten dizute hiru izenok?

Bela Bartokek gauza asko esaten dizkit, oso *bartokiarra* naiz eta. 1950eko hamarkadan deskubritu nuen, eta nola edo hala bere partiturak eskuratzen saiatu nintzen. Ikertu eta ikasi egin nituen, eta oraindik sarri entzuten dut bere musika, gehien erakartzen naue-netako bat baita. John Cage eza-gutu nuen 1958an, Europara egin zuen lehen bidaietako batean, Daermstadtetik jaialdian. Eta iraultza bat izan zen. Cage musika konpositore bat baino zerbait gehiago da. Cage, beste ezeren gainetik, musika pentsamendua-ren ziztatzailea izan zen, edo pentsamenduarena orokorrean. Bere esaten zuen ez zuela musika sortu nahi, baizik eta musika bere kabuz sor zedila, eta erabakiko bagenu hemen atzealdeko gizon hauen oihu eta zaratak [taberna batean gaude...]. Musika dirala, bada, musika dira. Jarrera erabat anarkista zuen, eta ez diezalogun jarri kasu honetan bederen anarkista izenondoari zentzu peioratiboa, ez duelako... ez ninduen erakartzen, baina aukera horrek liluratu ninduen bere garaian, bai. Stravinski Bartoken gisako zerbait da niretzat, baina aitortu beharra daukat batez ere bere lehen etapan izan nuela berekiko idolatria; arte obra zoragarriak egin zituen; adibidez, *Le Baiser de la fée*... Europako musikaren ezinbesteko bat.

Beste izenik batuko zenioke hiru izenok orri?

Bai, bat behintzat bai, nolabait gure aita musikala baita: Claude Debussy. Debussy da konpositore bat beti zerbait eskaintzen dizuna. Arreta jarritz beti topa litezke gauza zoragarriak bere musikan.